

*Helduen Euskalduntze Alfabetatzea (HEA):
sustraiak eta adarrak*



EDUKIAK:

- 1. Nasak eta euren hizkuntza, nasa yuwe**
- 2. Garabideren hizkuntza-lankidetzaren planteamendua**
- 3. Helduen alfabetatze eta irakaskuntza: Nasa yuwe helduentzat**

1. Nasak eta euren hizkuntza, nasa yuwe



Nasa herriaren inguruko hainbat datu

- 400 urte zapalkuntza pairatzen (eta aurre egiten)
- Andeetara baztertuak
- Lurraldea berreskuratzeko borroka latza. Lurraldearen berreskuratze partziala
- Bortizkerian murgilduta
- Antolakuntza sozio-politikarako gaitasuna handia (CRIC)
<https://www.cric-colombia.org/portal/>
- Eskumen batzuk onartuta:
lurraldearen zaintza (*Kiwe teghnak*),
hezkuntza, osasuna eta justizia.



Nasa yuwe hizkuntzaren egoera



- Hizkuntza isolatua
- Ko-ofiziala nasa lurraldeetan baina inongo babesarik gabe
- Hizkuntzaren ezagutza %30-40, bereziki belaunaldi helduetan
 - 400.000 nasa, 140.000 dira nasa yuwe hiztunak
 - Hizkuntzaren bizitasun maila oso ezberdinak (ia %0 - %80)
- Belaunaldi arteko transmisioa etena
- Idatz-eredurik eza.
 - Sistema ortografikoaren estandarizazioa (2001)
 - Idazteko ohiturarik ez
 - Alfabetatu gabeak
- Hezkuntza-sistema gaztelaniaz
 - 2 ordu astean Nasa Yuwe ikasgai moduan.
- Helduen eskolak
 - Hiztunak irakasle
 - Ikasleak bai, baina emaitza eskasak



2. Garabideren hizkuntza-lankidetzaren planteamendua

**Euskararen biziberritze-prozesuan bildutako esperientzia
PARTEKATZEA:
ezagutza teorikoa, estrategiak, baliabideak eta metodologia.**

**Herri indigenak eta
talde linguistikoak**

**Euskalgintza
(erakundeak eta herri-
ekimena)**

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



“Hizkuntzaren eta kulturaren biziberritze prozesua nahitaezko oinarria da jasagarritasunaren, giza eskubideen, genero berdintasunaren eta ekitatearen aldeko eraldaketa mugimenduetan” (www.garabide.eus)

3. Helduen alfabetatze eta irakaskuntza: Nasa yuwe helduentzat

Nasekiko 9-10 urteko harremana

Talde espezializatuak...

- Hizkuntza-planak
- Nasa-yuwe murgiltze eskolak
- **Helduen alfabetatze eta irakaskuntza**
- Komunikazioa eta hedabideak
- Itzulpengintza

GEUK IDENTIFIKATUTAKOAK:

- Ikasleen interes handia. Irakasleak gogotsu.
- Irakasleak nasa yuwe hiztunak dira baina ez dute formakuntza handirik, ez linguistikorik, ez pedagogikorik
- Baliabide gutxi
- Corpora garatu gabe eta testu gutxi

EUREK IDENTIFIKATUTAKO HUTSUNEAK...

- *“Ez dakigu **zer irakatsi...**” Agurrak irakasten ari gara, animalien hiztegia, koloreak, abestiak baina...*
- *“Ez daukagu **metodologia** bat”, ez dakigu zelan egin...*

Gure hasierako galderak eta hausnarketak:



- **Zein ibilbide** proposatuko diegu?
 - Formakuntza jasotzeaz batera behar dutena
- **Zein ikuspegi didaktiko** hartuko dugu nasa yuwe helduei irakasteko?
 - Baliagarria eta eginkorra. Motibagarria ikasleentzat
- **Zein produktu** sortu behar dugu?
 - Curricularra: Nasa yuwez A1 mailaren programa
 - Ikas materialak (liburua, fitxak, jolasak...)
 - Baliabideak: audioak, bideoak, testuak
 - Irakasle formatuak

Eta **FORMAKUNTZA**, hau dena egin dezagun

ZEIN IKUSPEGI HARTU????

Ikuspegi komunikatiboa....



ATAZETAN OINARRITUTAKO METODOLOGIA

ZERTAN DATZA KOMUNIKATZEKO IRAKASTEA?

IKASLEEI, TESTUTINGURU ERREALETAN ,
HIZKUNTZAREKIN *ZERBAIT EGITEN* IRAKASTEA DA,
EGOERA KOMUNIKATIBO EZBERDINETAN HIZKUNTZA
ERABILTZEKO.


Zer da ataza bat?

Ataza bat helburu bati begira burutzen den jarduera da; bertan, ikasleek hizkuntza erabili behar dute, emaitza erreal bat lortzeko; hizkuntza horretan dakiten guztiaz baliatu ahal dira ezarritako “arazoa” konpontzeko: jokia egiteko, esperientzia kontatzeko, etab. (Willis 1996: 85)

IKUSPEGI DIDAKTIKOAK MAILA GUZTIETAN ERAGITEN DU:

- IRAKASKUNTZA **HELBURUAK**
(Zer nahi dugu gure ikasleek nasa yuwez egitea?)
- IRAKASTEKO AUKERATUKO DITUGUN **EDUKIAK** (Zer irakatsi?) +
EDUKIEN PLANIFIKAZIOA (Diseinu curricularra, programak)
- **METODOLOGIA** (Nola irakatsi?)
- **EBALUAZIOA** (Zer eta nola ebaluatu?)

ZER IRAKATSI? DISEINU KURRIKULARRA: oinarrizko maila diseinatzen irakasleekin



Nasa yuwe helduentzako oinarrizko maila (A1)

PROGRAMA



Unitatea	Azken ataza
1. Pertsona berriak ezagutzen	CRICeko kongresuan izena eman (rol joko)
2. Ohiko harremanak	Klase-kideei familia aurkeztu argazki bat erabiliz
3. Nasa lurraldea	Nasen lurraldeko leku kuttuna deskribatu (ahozko aurkezpena)
4. Nasa kosmobisioko pertsonaiak	Nasen kosmobisioko pertsonaiak deskribatu (ahoz eta liburuxka batean)
5. Etxea	Etxe bat alokatu (rol joko)
6. Gure herria	Norberaren herria deskribatu
7. Erosketak	Erosketak merkatuan (benetan edo rol joko)
8. Ortua (TUL)	Landare katalogo bat osatu (zer da, zertarako erabiltzen da, nola landu)
9. Ekitaldi bat antolatu	Ekitaldi bat antolatu eta komunitateari horren berri eman
10. Errituala	Harmonizazio erritua batean parte-hartu

EGOERA KOMUNIKATIBOTIK FUNTZIO KOMUNIKATIBOETARA



ATAZA: Erosketan merkatuan (fruta)

Bezeraoa

- Agurtu
- Galdetu ea x daukan
- Galdetu zenbat balio duen Xek
- Zerbait eskatu (produktua+ kantitatea)

[Sekuentzia nahi beste aldiz errepikatzen da]

- Galdetu zenbat den guztia
- Eskerrak eman eta agur esan

Saltzailea

- Agurtu
- Ezezko ala baiezko erantzuna
- Prezioa eman
- (Produktua eman) Galdetu besterik nahi duen.

[...]

- Azken prezioa eman
- Eskerrak eman eta agur esan

FUNTZIO KOMUNIKATIBOETATIK EDUKI LINGUISTIKOETARA



Adx Arkaitz yaaseth
U'k Ane yaaseth
U'k Omaira yaaseth
Adx Rolando yaaseth
U'k Jasmin yaaseth



Adx / U'k + izena + yaaseth

3. UNITATEA - NASA LURRALDEA: PROGRAMA

Azken ataza: Nire toki gogoetaren deskribapen laburra




Ataza komunikatiboa	Funtzio Komunikatiboa	Eduki linguistikoak	Adibideak	Hiztegia	
1. Mapa baten laguntzaz, arbasoen lurra kokatu eta lurralde bakoitza nolakoa den esan.	Galdetu non dagoen + Kokapena adierazi	Galdera: -Xxx mteek nenu? (Non dago xxx?) - Xxx-te nenu' (X + kokapena+dago) Xxx yyyy jxu'j/ ütxa üsa (xxxx yyyy tik urrun/hurbil dago) Xxx yyy thakwek/ tasxuh üsa/nenu' (Xxx goian dago / yyyren azpian) Xxx Yyy txi' Zzz pxähte üsa (Xxx Yyy eta Zzzz artean dago)) Xxx Yyy wejxa dxi'j / nuusdxi'j/ sek kahnxi/ sek khenxi ju'gu üsa (Xxx yyyren hegoaldean dago)	Am Yu' mdeek nenu' Kwet yu' maa ju'gu nenu' Kwetyu' tunxivxu kiwete üsa Yu' çxihme çxavxivxni jxu'j üsa Çxifx Yu' txiwe çxhab utxa üsa Çxifx Yu' txiwe çxhab thakwek nenu' Toez klutu txi' fxutu çxhab pxähte üsa Tunxivxu, Txikli ksxa'w sek kahnxi ju'gu üsa	Galdetzailead Maadxi'j Mteek Maa Tokiak Tunxivxu Ju'g Yu' Spay Vxiç Uze Yu' Kwe't Yu' Pêtx Kiwe Us Yu' Txitx Kiwe Am Yu' Sxi Yu' Sxulxita Ulyu'k	Vxite Kiwe Baç Ukwe Payan Zxiiki Uswal Çxhab Aditz laguntzailead Jxu' Utxa Tasxuh Thakwhwe Ju'gu aditzak Nenxuya Vxaya Sustantivo Çxhab
	Galdetu nolakoa den eta labor-labor deskribatu	Galdera: xxx ma'wn (Nolakoa da xxxx?) Xxx + (adjektiboa)-k (X + adjektiboa da) Xxx + adjektiboa + me' (X ez da + adjektiboa)	Sek Çxhab ma'wn U'k çxhab walak Naa kiwe sena zxiçkwek Sek Çxhab wala me'	Nolakoa den esateko hitzak: Wala Ukwe Ûhdx Açxa Zxiçkwe Le'çkwe Fxize Wehçxa fxize	
	Galdetu zer dagoen leku horretan/zer duen leku horrek Adierazi zer duen eta zer ez duen leku horrek	Galdera: xxxx-te txajx üsn (zer dago xxx-en?) xxxx txajx ji'pn (zer dauka xxxx-ek?) xxxx (zerbait) ji'pna (xxx zerbait dauka=?) xxx-te üsa (xxxx-n yyyyy dago.) xxx-teji'pha (Xxxxxek dauka.....)	Txâa kiwesu txa'jx üsn Uswal kiwe txajxn ji'pna Am Yu' yu' wala ji'pna Tunxivu e'sxavx ji'pha Spaynxi vxiç kiwete yu' îç ji'pme' Çxifxyu kiwete yu'wala ji'pha Tunxivxu kiwesu yu'kh wala üsa	Îkh Wala We'pe Yukh Wala Yu' Wala Ki'na Kafx	

METODOLOGIA:

ATAZAREN SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

Hainbat jardueraz osatutako sekuentzia didaktikoa, non jarduera horiek helburu komunikatiboa lortzeko josita dauden.

<p>Ataza planteatu: Zer egingo dugu?</p> <p>Ataza testuinguratu: Non gertatzen da hau? Zertarako balio du?</p> <p>Aurre-ezagutzak aktibatu</p> <p>Azken emaitza finkatu eta ikasleekin konpartitu: Zein da azken emaitza edo produktua? (adib. ahozko aurkezpena, idatzizko testu bat, role-play-a)?</p> <p>Helburuak: ataza egin ondoren, ikasleak zer egiteko gai izango dira?</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. gaitasuna • 2. gaitasuna • 3. Gaitasuna • ... <p>Edukiak: ataza burutzeko zein hizkuntza-eduki aktibatu edo landu behar dira?</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. edukia • 2. edukia • 3. edukia • ... 	<p>Jarduerak: modu jakinean multzokatuta eta ordenatuta, gaitasunak eta eduki linguistikoak egoki lantzen direla ziurtatzeko:</p> <p style="text-align: center;">  </p>	<p>Azken produktua (role-play bat, ahozko aurkezpen bat, kartel bat, idazki bat, eztabaida bat...)</p>
---	--	---

Audio/bideo materialak sortzeko tailerrak



AGURRAK

LAGUNA AURKEZTEN

MERKATUAN



KOMUNITATEA TREBATZEN

Lana partekatzen



IKASITAKOIA, LORTUTAKOIA... LANKIDETZAREN ESPERIENTZIA



- Gu: desikasi elkarrekin ikasteko
- Irakasleak, gero eta autonomoagoak
- Nasak eta euskaldunak: ekipo ona
- Aldaketak herrian, promotoreen artean
- Promotoreak, ikasleak eta komunitatea ahaldundu dira

HAIEN GARAPENA, EUREN EREDUA:

- Hizkuntza erdigunean
- Kosmobisio nasa: espiritualitatea, lurra, natura
- Nasa identitatea
- Motibazioa. Herriaren kontzientziazioa, herriaren inplikazioa
- Behetik gorako prozesua
- Hezkuntza eredu burugaina
- Garapen eredu propioa, nasa eredu

ETA GERO BESTE HERRI BATZUENTZAT EREDU

Helduen Euskalduntze Alfabetatzea (HEA): sustraiak eta adarrak



Pay pay
Eskerrik asko



Proyecto EquiLing
<https://www.equiling.eu/es/>



**garabide
erabepiq**

